

ELKAR GAITEAN

(AMERIKETAKO NEKOCHEAN SARITUA)

Arbol igarra zatitzen duen
Aize beartu neurri gabea;
Udaberriyan jostatzen zeran
Chori berrichu pozez betea;
Bigal nazute Batzoki oni
Mintza zayodan argi bidea;
Kanta dezadan choku au dala
Jar goya bera beziñ ohea,
Dala *Euskadi* egiyazkoa
Euskaldunaren adiskidea.

¿Pregoitzen bada alkartasuna
Bearra dala leku danetan,
Nola ez izan bearragua
Egualdeko Ameriketant?
Orrenchengatik kantatu nai det
Baserrichoan, mendi gañetan,
Esanaz nola aingeruhoak
Gozoro eta itz ederretan,
Kantatzen duten biziरो samur
Oriše bera zeruan bertan.

Eskeñi ori on iritziyak
Beartsu eta goitandituak,
Danak izango zerate ziur
Eguzkiraño mirarituak;
Atozte laister pake zaleak
Sartzera ari argi sutsuak,
Su-gar oyekin alaitutzeko
Zalantzan dauden leyal gaisuak,
Entzun dizaten danak batuta
Gure lurreko kanta santuak.

Bedeinkatzen det Nekocheako
Mancha gabeko bildu lekua,
Dalako espa aundirik gabe
Euskaldunaren kabi chokua;
Lagunak ditu urrutiyetan,
Atariya ta eche ausua,
Aldandetu nai duenik bada
Onla maitatzen degun chulua,
Au izango du kupira gabe
Merezi duen zorigaistua.

Alper alperrik leyatzen dira
Laño churiyak, odoi illunak:
Alperrik ausi orro egiñaz
Itsas arrotu iñoiz legunak:
Guziyak errez purrukatzeko
Indartzu dauzka beti lagunak:
Kazkarabarrak naiz menderatu
Ipar aldeko aire bigunak,
¡A! zanpatuko ditu dan danak
Berritzen degun alkartasunak.

Zerbaiten gatik artzai gazteak
Goitutzen zaitu mendi kantetan,
Artzayen leyan fedetsu diyo
Nekazariyak baserriyetan;
Onratzen zaitu itsas gizonak
Naiz arkitu chit urrutiyetan,
Baso galduan, basamortuan,
Landa, saroyan, mendi gañetan,
«Bizibedi» ¡a! euskal eche au
Ojukatuaz leku danetan.

Zu gabe nola bizi liteke
 Diyote chori polit chikiyak,
 ¡Zu gabe nola! gorde ezñik
 Beren umeak, beren kabiya:
 Menditik beera Segaran jaisten
 Diran ur eder garbi garbiyak:
 Arrosa, menda, lila, krabeliñ
 eta lurpean dauden piztiyak,
 Danak diyote bearra dala
 Bat egitea dana guziyak.

¡Zer egia dan! bakardadeak
 Igarotzen du triste eguna,
 Eta oraindik samintzuago
 Bukatzen eztan arratz illuna;
 Bildoch galdua mendiyen beeka
 Billatu nairik zeñek entzuna,
 Bakardadeak ikaratua;
 Zerbaiten espan iskinchoz juna,
 Urrikarrizko deyeran nairik
 Arkitu lengo laguntasuna.

Ama lajata joaten diranak
 Buru gabeko baten moduan,
 Pasiatz itsas zabala eta
 Gertatutzean beste munduan,
 Oroituko da bein da bi aldiz
 Utzi zuenaz damuz orduan
 Oroituko da ez beldur izan
 Eztaukanean bere onduan
 Eta añ bakar arkitutzean
 Ama batek zer baliyo duan.

Atozte laister, atozte ariñ
 Zai daukazute euskal chokua,
 Jauregi eder galaya baña
 Askotaz ere ederragua;
 Eskeintzen degu biyotzetikan
 Gure estalpe modestitua,
 Gure kabiya, gure chulua,
 Gure Batzoki egjyazkua,
 Jel aldekuak euskaldunakin
 Anaitutzeke alchatakua.

Atozte ariñ nere deyera
 Astindurikan beldur izuak,
 Irristan jaisten diran bezela
 Mendiyen beera errekachuak;
 ¡Ez ikaratu! zeru zabala
 Naiz menderatu odoi pisuak,
 Danak laisterka igezko dira
 Ta gelditzean ezkutatuak,
 Agurkatuko gaitu parantzan
 Eguzki eder urreztatua.

Ordu eder au allegatzeko
 Pozturik daude iturrihuak;
 Poztuko dira gordeta zeuden
 Chori izuti gizarajuak:
 Eutzungo dira menditik mendi
 Poz irrintziyak, zanzo ojuak,
 Ostoz apaindu nai lutekela
 Enbor legortu aizkoraz juak,
 Baita poztuko dira azkenik
 Lurpeko pizti chiki gaisuak.

Entzungo dira alaitutzeke
 Gure lurreko usariyuak,
 Zorigaiztoko etsai zitalak
 Gorroto beltzez azpiratuak;
 Entzungo dira Gernika eta
 Zortziko zar zar anziñakuak,
 Chisto, danboliñ, dultzainak eta
 Mendi mutillen chiruliruak,
 ¡Soñu eztsitu zoragarriyak!
 ¡Euskaldunaren biyotzekuak!

VICTORIANO IRAOLA